

MATRIKULA EPEA

2024ko azaroaren 18tik abenduaren 12ra.

Informazio zehatzagoa www.ega.navarra.es eta www.navarra.es webguneetan.

AURKEZTU BEHAR DIREN DOKUMENTUAK

- Eskabide orokorra eta matrikula inprimakia.
- NANaren fotokopia.
- Ordainketa-gutuna.
- Behar denean, matrikula tasa murriztua ordaintzeko agiria, eguneratua.

ORDAINDU BEHARREKOA

Matrikula tasa arrunta: **26,20 €.**

Matrikula tasa murriztua:

- **13,10 €:** 1. mailako familia ugaria, Familia gurasobakar orokorra eta %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duena.
- **MATRIKULA DOAN:** 2. mailako familia ugaria, Familia gurasobakar berezia, %65eko edo hortik gorako desgaitasuna duena, Genero indarkeriaren biktimak eta Ekintza terroristetako biktimak.

MATRIKULA AURKEZTEKO MODUA

- **Aurrez aurre:** Hezkuntza Departamentua. Santo Domingo, 8. 31001 Iruñea.
- **Modu telematikoan:** Erregistro Oroker Elektronikoa.

ZERRENDAK

Behin-behineko eta behin betikoak: 2025eko urtarilean.

Informazio zehatzagoa www.ega.navarra.es eta www.navarra.es webguneetan.

AZTERKETAREN DATAK

Lehen proba otsailean izanen da.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratzeaz batera, Atariko Probaren data, ordua eta tokia adieraziko dira. Gainerako azterketen datak azterketen behin-behineko emaitzekin batera argitaratuko dira.

ADINA

16 urte beteta 2024ko abenduaren 31n.

1. ATARIKO PROBA

Lehenengo proba da, eta test erako 80 galdera ditu (80 puntu), ondorengo gaitasun eta jakintzak ebaluatzeko:

1. Hizkuntza Baliabideak. Bi ariketa dira, hizkuntzaren erabileraren zuzentasuna eta egokitasuna neurtzeko.

✓ 40 itemeko testa, aukera anitzekoa (a-b-c-d). 40 puntu.

✓ 10 itemeko cloze testa, aukera anitzekoa (a-b-c). 10 puntu.

2. Entzunaren ulermena. Entzungai batzuei buruzko aukera anitzeko itemak. Grabazioak bi aldiz entzunen dira.

✓ 3 aukerakoak: 10 item (10 puntu).

✓ Entzungai laburrak eta dagozkien adierazpenak lotzeko ariketa (5 puntu).

3. Irakurriaren ulermena. Irakurgai batzuei buruzko aukera anitzeko itemak.

✓ 3 aukerakoak: 10 item (10 puntu).

✓ Testu zatiak eta dagozkien adierazpenak lotzeko ariketa (5 puntu).

Puntuazioa guztira: probak 80 puntu balio du eta hurrengo fasera pasatzeko 52 puntu atera behar dira, gutxienez (%65).

🕒 2 ordu eta 30 minutu.

2. PROBA IDATZIA

Bigarren proba da, eta bi ataza ditu.

✓ **1. idazlana:** gutun formala edo pertsonala. 180 hitzekoa, gutxienez. Bi gai aukeran.
Puntuazioa: 10 puntu. Kalifikazioa GAI/EZ GAI izanen da eta zenbakiz ere zehaztuko da.

✓ **2. idazlana:** argudio eta azalpen testua. 250 hitzekoa, gutxienez. Bi gai aukeran.
Puntuazioa: 10 puntu. Kalifikazioa GAI/EZ GAI izanen da eta zenbakiz ere zehaztuko da.

Puntuazioa guztira: bi idazlanetan lortutako puntuen batuketa egingen da. Gainditzeko, 10 puntu gutxienez lortu beharko dira. Kalifikazioa GAI / EZ GAI izanen da eta zenbakiz ere zehaztuko da.

🕒 2 ordu.

3. AHOZKO PROBA

Hirugarren proba da. Bi ataza ditu, eta binaka egiten da.

✓ Irakurgai baten ahozko azalpena.

Prestatzeko: 30 minutu.

Azaltzeko: 5na minutu.

✓ Iritzi-trukea: azterketariak bat-bateko iritzi-trukea egingen dute ahozko azalpenetako gaien inguruan.

Iraupena: 10 minutu elkarreraginean.

Puntuazioa guztira: bi atazetan lortutako puntuen batuketa egingen da. Gainditzeko, 10 puntu gutxienez lortu beharko dira.

Kalifikazioa GAI / EZ GAI izanen da eta zenbakiz ere zehaztuko da.

AZTERKETARA ERAMAN BEHARREKOA

‘Azterketara nortasun-agiria, pasaportea edo gidabaimena eraman behar da.

‘Atariko Proba egiteko 2 zenbakidun arkatza eta borragoma behar dira.

‘Proba Idatzia eta Ahozko Proba egiteko boligrafo beltza edo urdina behar da.

ZUZENKETA ETA KALIFIKAZIOA

– **Atariko Proba** irakurgailu optikoz zuzentzen da, eta emailtzak Euskara Atalean egiaztatzen dira.

– **Proba Idatzia** eta **Ahozko Proba** bi zuzentzailek kalifikatzen dituzte, elkarren berri izan gabe. Idazlan bakoitzean bi zuzentzaileen kalifikazioak GAI direnean, batez bestekoa egiten da. Zuzentzaile baten kalifikazioa GAI eta bestearena EZ GAI denean, hirugarren zuzenketa bat egiten da.

– Proba Idatzian **plika sistema** erabiltzen da, anonimotasuna babesteko.

– Ahozko Proban saio guztiak bideoz grabatuko dira.

BESTELAKOAK

– Azterketariak ziurtatu behar du zerrendetan agertzen dela.

– Berrikuste saioetara azterketaria bakarrik joanen da, esandako egunean eta orduan, eta nortasun-agiria eramanen du.

– Norbaitek ezgaitasunik badu, azterketak egiteko baldintza bereziak eska ditzake matrikula orrian.

– Urtean behin egiten da. Agiria eskuratzeko, azterketaren hiru probak (Atarikoa, Idatzia eta Ahozkoa) gainditu behar dira, nahitaez, eta hirurak baztertzailak izanen dira.

Ebazpena: 396/2024 Ebazpena, irailaren 19koa, azaroaren 7ko 226. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Azterketaren gaineko informazioa, azterketa ereduak, zerrendak, kalifikazioak, etab. eskuratzeko:

www.ega.navarra.es

Euskara Atala

Tel.: 848 426 593

ega@navarra.es